



Orain dala ehun urte jaixotakuak



Intto-bazkariko argazkixa doze gaurkua: 1957ko urriaren 28xan, San Simon eta San Judas egunian, ataratakua. Kintto-lagunok urte haretan 51 bete zittuain, 1906xan jaixuak ziran-eta. Biziko balira, aurtan **ehun urte**. Bueno, herri gehixenak daki orduko kintto batek, beste lau emakume oñatiarrek letxe, laister izango dittuala gizardi bete urte: Zubillagako Tomas **Igarzabal** abade jaunak, orain San Martin egoitzan bizi danak. Garai haretan Argentinan eguelako, beste argazki batetik, 1974ko kintto-bazkarikotik, aukeratu dogu bere irudixa. Fotografixa haundixan agiri diranen izen-abizenak, berrix, honeitxek dira, behetik gora eta ezkerretik eskumara:

Beheko illaran makurtuta: Bernardo **Zubia**, Gernetakua (Araotz); Anjel **Korkostegi**, Kale Barrikua, Bizkaiko Etxebarrira ezkondua; Euxebio **Igartua**, Elorduikua (Larraña); Paulo **Larrañaga**, Aumategikua (Elorregi); eta Maurixio **Arregi**, Koixkar Azpikua (Garibai), Bergarara ezkondua.

Bigarren illaran jarritta: Juane **Elorza**, *Txinparta*; Florentino **Biain**, Arretzekua (Murgixa); Felix **Mondragon**, Errostakua (Olabarrieta); Doroteo **Ugarte**, Kale zaharreko barberua; Ziriako **Arriaran**, Kale Zaharrekoa, Urruxolako abadia; Faustino **Inza Txaiña**; eta Ladislao **Aranburu**, Goittikua (Santxolopeztegi).

Hirugarren illaran zutik: Pedro **Anduaga**, Gesaltzakua (Arantzazu); Karlos **Olalde**, Gaztelondokua (Garagaltza); Nikolas **Markuleta**, Danbolingua (Larraña); Genaro **Billar**, Arretzekua (Zubillaga); atzian, Paulino **Egaña**, Garibigoittikua (Garibai); Frantzisko **Billar**, Zediagakua (Olabarrieta), Kale Barrira ezkondua; atzian ezkutu antzian, Pedro **Kortabarría**, Bellotzakua (Arantzazu); Fermin **Zubia**, Muñokua (Olabarrieta), San Prudentziora ezkondua; Dionixio **Altube**, Murgialdaikua (Murgixa); Pedro **Igartua**, Azkontegikua (Lezesarri); Joxe Mari **Zubia**, Atzeko kaleko dentistia; Paskual **Iarza**, Domiñena (Elorregi), Kale Zaharrea ezkondua; Lorentxo **Letamendi**, Azpikua (Zubillaga), Lekunbarrira ezkondua; Juan **Altube**, Ugaztegiakua (Korueta), Urruxolara ezkondua; X. X.; eta Gilermo **Guridi**, Narbaixenekua (Zubillaga).

Goixeneko illaran: Kaittano **Alzelai**, Aiastakua (Olabarrieta); Martzelino **Betelu**, Estañukua (Urruxola); German **Berrikano**, Arabako Ozaetakua, Oñatiko tren-estaziñoeko jefia; Anjel **Maiztegi**, *Melitonena*, Patruer kalekua; Teodoro **Odriozola**, Aizkirrikua (Arantzazu); Gregorio **Ugarte**, *Kristobalena*, Auzotxokua; eta Kaittano **Elorza**, Markizabalgua (Zubillaga).

J. E.

Fotografixok Nikolas Ugarteren bidez zuzendu dittugu. Informaziño gehixena Nikolasek berak eskuratu dosku; eta Joxe Luis Beteluk eta Luis Mari Berrikanok be xehetasun batzuk argitti doskue.